

Ados taldeak 'Manolito Gafotas' antzezlanarekin estreinatuko du bihar, Donostiako Victoria Eugenia antzokian. Euskarazko bertsioa, berriz, urtarrean taularatuko dute estreinakoz, Getxon.

● Eguneroko bizitzari buruzko gogoeta samur eta ironikoz zipriztinduta dago Manolito haurraren begirada heldua.

Manolito Gafotas	
Antzezlanak:	Manolito Gafotas.
Taldea:	Ados.
Antzezleak:	Koldo Losada, Mila Espiga, Nagore Aranburu, Jon Ezkurdi, Itziar Suarez eta Juan Luis Escudero.
Musika:	Joxan Goikoetxea.
Soinu banda:	Joxean Olaberri.
Argiztapena:	Carlos Salaberri.
Testua eta zuzendaritza:	Garbi Losada.
Egilea:	Elvira Lindo.



Irribarrez laztandutako haur gogoetak

● **inaki lazcano**

Elvira Lindo kazetari eta idazle andaluziarren irudimen oparotik sortua da Manolito Gafotas. Radio Nacional irratiaren ezagun egin zen, eta berehala egin zuen jauzi irrati uhinetatik gazte literaturara. Iragan udan, berriz, zinemara eraman zuten. Manolito Gafotas bihurriaren abenturen xarmak haur zein helduak erakarri ditu azken urteotan. Ados antzerki taldeko kideak, noski, ez dira salbuespen izan. Urte hasieran Elvira Lindorekin bildu ziren, Manolito Gafotas oholtzetara eramateko asmoz. Egilearen baimena erdietsi ostean, ilusio handiz ekin zioten lanari.

Garbi Losadak, zuzendari lanaz gain, testuen egokitzapenaren ardura

reñoak eskolako ume guztiak —Manolito Gafotas barne— bakearen usoz janztera derrigortu eta mozorro-lehiaketa batera aurkeztu nahi izan zituenekoa kontatzen da. Manolito, esperientzia horren ondorioak ikusita, nazioarteko bakearen alde borrokatzea ezinezkoa dela pentsatzera iritsiko da.

Irakurketa soziala duen komedia

● Koldo Losadak Manolito Gafotas haur ezohikoaren rola jokatzen du obra honetan, eta bera da aproposena

Imbecil Manolito Gafotasen anaia txikia da eta ez da batere inozoa, portzietto. Horieta gain, beste pertsonaia interesgarri anitz dago antzezlanean. Yihad, eskolako ume harro eta borrokalaria; El Orejones, Manolitoaren lagunik onena; Sita Asuncion andereñoa... eta, noski, gurasoak. Aita kamiolaria da eta mutua dirudi. Urtean zehar hirutan soilik hitz egiten du: bere urtebetetzean, Gabon zaharrean eta Real Madrid-ek irabazten duenean. Beraz, amari dagokio etxea gobernatzea.

Manolito Gafotas komedia entretenigarria ikusle helduei

zuzenduta dago bereziki. Garbi Losadaren aburuz, gainera, komedia huts bat baino gehiago da. «Manolito Gafotas komedia bat den arren, irakurketa sozial bat ere badu bere baitan. Manolito Carabanchel auzo txiroan bizi da, eta inguratzen duen errealtateari buruz iritzi bat ematen du. Samurtasunez baina ironiaz betetako ikuskera bat, alegia. Bestalde, Manolitoaren abenturek haur ginenean bizitako sentimenduak nostalgiaz nahiz irribarrearen laguntzaz oroitzeko parada ederra eskaintzen digute. Ilusio handiz egindako lana izan da, eta ikusleek ondo igaroko dutela uste dugu».

ere izan du. Manolito Gafotas egokitzeta polita izan bada ere, ez dirudi lan samurra izan denik. «Manolitoaren liburuxkak abentura laburrekin daude osatuta. Nik, ordea, egitura luzeko obra bat egin nahi nuen. Hori zen, beharbada, zailtasunik handiena. Azkenean, abentura bakarria erabili dut antzezlanaren bizkarrezurra osatzeko. Behin oinarria edukita, Manolito Gafotas pertsonaiari buruz esku artean nuen material guztia hartu eta onena hautatzen saiatu naiz, obra ahalik eta gehien aberasteko.»

Eskolan girotutako istorio bat da antzezlanaren ardatza. Bertan, ande-

ANTZERKIA

Dos piezas de Dario Fo. ■ Gaur eta bihar, Iruñeko Nafarroako Antzerki Eskolan, 21:00etan.

Manolito Gafotas. ■ (Ados). Bihar, larunbatean, igandean, astelehenean eta asteartean, Donostiako Victoria Eugenia Antzokian, 20:00etan.

A rutina é o deber de todas as criaturas. ■ (Chévere). Bihar, larunbatean eta igandean, Bilboko La Fundición aretoan, 20:30etan.

Dale recuerdos. ■ (Cobaya). Bihar, Bilboko Bilborock aretoan, 20:15etan.

Mari Sorgin. ■ (Taupada). Larunbatean, Donostiako Lugaritz-en, 20:30etan.

Besos. ■ Igandean, Iruñeko Nafarroako Antzerki Eskolan, 20:00etan.

Cyrano de Bergerac. ■ (Bamballina). Igandean, Bilboko Bilborock aretoan, 20:15etan.

Sophisticated Ladies. ■ (New Harlem Theater). Igandean, Santurtziko Serantes kultur aretoan, 20:30etan. Astelehenean, Miarritzeko Scene Nationale-n, 21:00etan. Asteartean, Gasteizko Principal Antzokian, 20:30etan.

La Malade Imaginaire. ■ Asteartean, Miarritzeko Gare du Midin, 21:00etan.

DANTZA

Las mil y una noches. ■ (Kharkov Balleta) Gaur, Gasteizko Principal Antzokian, 20:30etan. Bihar, Santurtziko Serantes-en, 20:30etan. Larunbatean, Basauriko Social Antzokian, 20:00etan.

ZINEMA

Encadenados. ■ (Zuzendaria: Alfred Hitchcock). Gaur, Zornotza Aretoan, 20:15etan.

Marruecos. ■ (Zuzendaria: Josef von Sternberg). Gaur, Iruñeko Golem aretoan, 22:30etan.

Beldurrezko eta fantasiako Zinema Maratoia: The Raven + The Storm Riders + Abuelitos + El hombre elefante + Viet-Nam + Angel of the Night. ■ Asteartean, Lasarteko Manuel Lekuona kultur etxean, 20:00etan.

Manolito Gafotasen ikuskera samurtasunez eta ironiaz beteta dago; umore heldu bat da